

BALIO PROPOSAMENA

Gure zerbitzua COVID-19ak gaur egun izan duen eraginera bideratuta dago, eta, horregatik, zerbitzu hau antolatu dugu:

- ekonomikoki kaltetuak izan diren pertsoneri laguntzeko
- komertzio txikiak bultzatzeko
- ingurumena zaintzeko, musukoak birziklatuz.

Gure zerbitzua **berria** dela uste dugu. Gaur egun bizi dugun egoera kontuan izanda, gure zerbitzuaren beharra ikusten dugu, lanik gabe geratu diren familia edo enpresa askori laguntzeko, ekonomikoki oso kaltetuak atera direlako.


Gure zerbitzuaren **diseinuak** ikuspegi koloretsua izango du.

- Tapa izango du birusaren kontuarengatik, eta pedal antzerako bat, inor ez kutsatzeko.
- Zakarrontziak botoi bat izango du. Botoi horrek atera eta gel desinfektatzailea botako dizu.
- Beste botoi bat egongo da, non plastikozko poltsak eskainiko dizkizun, itxitura batekin. Bertan, musukoak sartu eta itxi egin beharko duzu zakarrontzira bota aurretik.

Txartelaren **diseinua** berriz;

- zakarrontziaren ikuspegi koloretsu berdina izango du
- enpresaren logoa izango du
- txartelaren izkina batean partaide bakoitzaren izenaren inzialak agertuko dira (*MALI*).

Bestetik, **denda txikietan kontsumitu** ahal izateko diseinatuta daude gure txartelak, eta pertsonak behar duten edozein behar fisiologikoarekin lotutako produktuak edo hurrekin lotutako produktuak erosi egin ahalko dituzu, gurekin batera zure musuko kirurgikoa birziklatzean lortutako diruarekin.



Eskaintzen dugun zerbitzua **doakoa** da guztientzat. Guk ere, zerbitzua sortu dugunok, ez dugu gasturik;

- Enpresa batekin negoziatzen dugu, eta enpresa horrek dirua jartzen du, bere logoarekin publizitatea egin ahal izateko, zakarrontzian eta jendeari ematen zaizkion txarteletan.

Bestetik, zakarrontziak hirian zehar era logiko batean kokatuko ditugu, zure etxetik ahalik eta gertuen izateko. Horretaz aparte, **erabiltzerako orduan** ez dituzu inolako zailtasunik aurkituko.

- Zakarrontzian, hura erabiltzeko pausuak aurkituko baituzu.
- COVID-19a sortu duen egoera honetan jakitun gara heldulekuak ekidin behar direla
 - hori dela eta, pedal bat gehitu egingo diogu.

Merkatuaren azterketa ikertu dugu eta antzerako proiektu batzuk martxan badaudela ikusi dugu, baina ezberdinak dira, beraiek musukoak bakarrik berziklatzen dute eta guk aldiz, trukaketa bat egiten dugu, beharra duten familiekin.

Gure proiektua, Euskal Herrian zabalduko dugu, gu bertakoak garelako, eta hasiera batean poliki hasi nahi dugulako. Hori dela eta, nahiz eta gure helburu nagusia Euskal Herri osora zabaltzea izan, gure proiektua Gasteizen emango ditu lehenengo urratsak, beste lekuetara hedatzearen ambizioa galdu gabe.